

## **13. NAO - 2016ko urtarrilaren 21a**

## **14. ALDIZKARIA - 2024ko urtarrilaren 18a (3.Art-en, 10.3Art-en eta tarifaren aldaketa)**

### **12. ORDENANTZA FISKALA, HERRIKO JABARI PUBLIKOKO ZORU, HEGALKIN ETA ZORUPEAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAREN TASAK ARAUTZEN DITUENA**

#### **OINARRIA**

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenengo tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

#### **ZERGAPEKO EGINTZA**

2. artikulua. Zergapeko egintzak dira herriko jabari publikoko zoru, hegalkin eta zorupearen erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak, hala nola:

- a) Erabilera publikoko zorupea okupatzea.
- b) Erabilera publikoko lurra salgai, eraikuntzako material, hondakin, hesi, puntal, euskarri, aldamiu edo gisako instalazioen bidez okupatzea.
- c) Pisuetako burdinsareak, soto edo sotoarteei argia, aireztapena, pertsonen sarbidea edo ibilgailuen sarrera eman ahal izateko herriko edozein eremu publikotako zoru edo zorupean kokatutako lukana, arnasbide, ate, karga-aho edo gisako elementuak, bai eta argi-sare publikotik egindako hargunea ere.
- d) Toki entitateko edozein eremu publikoko hegalkina ukitzea, eraikinak ixteko elementu, terraza, behatoki, balkoi, markesina, olana edo gisako instalazioekin, eremu publikoaren gainean dauden edo fatxadaren lerrotik ateratzen diren hegalkinak, eta balkoi eta terrazak kristalez ixtea.
- e) Toki entitateko eremu publiko edo jabari publikoko bertzelako lurretan edo haien hegalkinean kokatuta dauden hariak, hodiak eta galeriak, argi indarra, ura, gasa edo bertze edozein isurkari eramateko; kableak, horma-besoak, lotura, banaketa edo erregistrorako kaxak, transformadoreak, burni-barrak, baskulak, aldamiuak eta gisakoak; eta salmenta automatikorako tresnak eta gisakoak.
- f) Irabazteko xedearekin mahaiak, aulkiak, tribunak, oholtzak edo haien gisako bertzelako elementuak jarriz erabilera publikoko lurra okupatzea.
- g) Eremu publikoan kioskoak paratzea.
- h) Erabilera publikoko lurretan kokatutako postu, barraka, saltoki, ikuskizun, atrakzio eta jolaskizunak jartzea, bai eta kalez kaleko industriak eta zinema filmaketa ere.

- i) Portada, erakusleihu eta beira-arasak.
- j) Erregaiaren biltontziak eta hornigailuak eta, oro har, erabilera publikoko lurretan kokatutako artikulua edo salgaiak.
- k) Toki entitateko jabari publikoko lurak okupatzen dituzten edo herriko errepide edo eremu publikoetatik ikusgarri diren iragarkiak jartzea.
- l) Lur, eraikin edo hesiei eusteko hormak, behin betikoak zein behin-behinekoak, herriko eremu publikoetan.
- m) Azienda herriko eremu publiko edo jabari publikoko lurretan barna igarotzea.

### **ORDAINDU BEHARRA**

3. artikulua. Ordaindu beharra sortzen da erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hastean, eta aurretik behar den baimena eskatu behar da.

Udalaren nahitaezko lizentzia izan gabe hasten bada erabilera edo aprobetxamendua, ordenantza fiskal honetan ezarritako tasa pagatzeak ez du izandako erabilera edo aprobetxamendua legeztatuko, eta kalte-ordainik eman gabe instalazioak kentzeko agindu daiteke.

Ordenantza honen xedeko erabilerak edo aprobetxamenduak tasaren aldizkako sortzapena eskatzen duenean, hura urtarrilaren 1ean sortuko da, urtero, eta zergaldia urte naturala izanen da, salbu eta erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia urte hartan hasi edo bukatu egin den kasuetan, orduan zergaldia horren arabera moldatuko baita eta, kuota hiruhileko naturaletan hainbanatuko.

Hala ere, Udalak dagokion baimena ematen badu zergaldia hasi ondoren, tasa hilabeteka hainbanatuko da, baimena eman den hilabetea ere kontuan hartuta.

### **ORDAINTZERA BEHARTUAK**

4. artikulua. Tasa ordaintzera beharturik daude, zergadunak diren aldetik, pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik ez izanik ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten entitateak, baldin eta, toki entitateko jabari publikoko zoru, hegalkin edo zorupearen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiten badute, edo hari onura ateratzen badiote.

Eremu publikoan paratzen diren edukiontzien kasuan, lizentziaren titular edo aprobetxamenduaz baliatzen direnez gain, zaborrontzien jabeek eta etxegileek ere ordaindu beharko dute.

5. artikulua. Hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek zoruan, hegalkinean eta zorupean egindako erabilera edo aprobetxamenduen tasak horien gaineko ordenantza fiskalen edo aplikagarri diren udal erabakien menpe egonen dira.

### **OINARRIAK, TASAK ETA TARIFAK**

6. artikulua. Tarifak aplikatzeko oinarria zehaztuko da erabileraren edo aprobetxamenduaren iraupenaren eta okupatutako eremu publikoaren azaleraren arabera.

7. artikulua. Tarifak ordenantza honen eranskinean agertzen dira.

## **KUDEAKETA ARAUAK**

8. artikulua. Erabilpen pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak berekin dakartenean toki erakundearen jabari publikoaren suntsiketa edo narriadura, onuraduna, behar den tasaren ordainketa ukatu gabe, aipatu horiek berreraiki edo konpontzeko gastuen kostu osoa ordaintzera beharturik dago, bai eta aurretik zenbateko hori gordailutako uztera ere.

Gordailu hori ukituta gerta daitezkeen ondasun eta instalazio guztien balioaren arabera finkatuko da, hura zenbakietara ekartzeko udal teknikariak txostena aldeztuz eginda.

Eremu publikoa edukiontziekin okupatzen bada, eremu publikoan edukiontzia paratzeari buruzko Ordenantza ezarritako zenbatekoei jarraituz finkatuko da gordailua.

Indarra duen arautegia edo lizentziaren baldintzak ez betetzeagatik ezarritako zehapenekin lotu daiteke gordailua. Fidantza itzultzeko beharrezkoa izanen da aldeztuz txostena, non indarra duen arautegia eta lizentziaren baldintzak hertsiki bete eta zoladura behar bezala konpontzen den islatuko baita.

9. artikulua. Erabilera dela eta sortutako kalteak konponezinak badira, onuradunak, desegindako gaiak zenbat balio duten edo kaltetutako balio galera norainokoa den, horrenbeste emanen dio ordaintzan Udalarari. Bereziki konponezintzat hartuko diren kalteak interes artistiko edo historikoa duten monumentuetan eta 20 urte baino gehiagoko zuhaitzetan egindakoak izanen dira.

Lehenik eta behin fidantzek kalte-ordain horiek estaliko dituzte.

10. artikulua.

1. Ordenantza honetan araututako tasei lotutako aprobetxamenduek behar den errola edo zentsua izanen dute ohikoak eta etengabeak badira. Tasa urtean behin ordaindu beharko da, Ordenantza fiskal orokorrean ezarritako epe eta baldintzetan.

2. Erabilerak edo aprobetxamenduak lizentziarik behar ez badute, aurretik dagokien kuota ordaindu beharko da. Horrela izanez gero txartela jaso beharko da, behar bezala datatua, horretarako izendatzen diren langileen eskutik.

3. Gainerako kasuetan, likidazioa dagokion departamentuan eginen da. Tasa ordainduko da lizentzia edo baimena eman dela jakinarazi baino lehen, erabilera edo aprobetxamenduaren epea zehazki finkaturik dagoenean. Hala ez bada, ordainketa eginen da erabilera edo aprobetxamendua amaitutakoan, hau da, partikularrak Udalarari bukatu dela jakinarazten dionean.

4. "Mahai, aulki eta mahaitxoak" izeneko 1. epigrafeari dagokionez, Udalak baimena osorik balio gabe utzi edo aldi baterako ken dezake, betiere arrazoi bidezko, obra, konpontzea eta abarren bat badago, eta kobratutako tasaren zati proportzionala soilik itzultzera behartuta dago.

## **SALBUESPENAK, HOBARIAK ETA EZ ORDAINTZEKO KASUAK**

11. artikulua.

1. Organización Nacional de Ciegos Españolesen kioskoak tasak ordaintzetik salbuetsita daude.

2. Eremu publikoa okupatzeko tasa zein kasutan ez den ordaindu behar:

a) Informazio, pedagogia, zientzia, laguntza edo enplegu kanpainetan, irabazteko asmorik gabeko elkarteek egiten dituzten okupazioak, haien jarduerarekin ikustekoa badute eta salmentarik, merkataritzarik, negoziarik edo transakziorik gabe egiten badira.

b) Aspalditik egin diren kanpainiak ongintzarako dirua biltzeko (Gurutze Gorria, minbiziaren kontrako kanpainia, HIESaren kontrako kanpainia etab.), eremu publikoa okupatzea badakarte.

c) Barañaingo Udalak babestuta edo sustatuta eremu publikoan egiten diren jarduerak, entitate edo elkarte pribatuek antolatzen badituzte.

## 2024KO TARIFEN ERANSKINA

### 2024ko TARIFAK

(eurotan)

#### I. epigrafea.–Lurzoruko aprobetxamendu bereziak

–Mahaiak eta aulkiak (terrazak), beladore estali gabeak, urtarriletik apirilera eta azarotik abendura (neguko denboraldia), m <sup>2</sup> bakoitzeko	14,00
–Mahaiak eta aulkiak, beladore estali gabeak, maiatzetik urrira (udako denboraldia), m <sup>2</sup> bakoitzeko	14,00
–Antzeko beste instalazio batzuk (upelak, mahai garaiak, aulki garaiak etab.) m <sup>2</sup> eta urte bakoitzeko	28,00
–Beladore estaliak, m <sup>2</sup> bakoitzeko	46,00
–Feriak	6.642,00
–Festetako atrakzioak	
–Karabana, atoi eta automobilak ez diren gainerako ibilgailuak, bereziki baimentzen direnean, tasa ordaintzeak baimena dagoela esan nahi ez badu ere:	
• Zenbatekoa, egunean	4,30
• Zenbatekoa, hilabetean	63,00
–Bestelako erabilera edo aprobetxamendua, jarduera ez ekonomikoetarako, hesietarako, aldaeretarako, obretako edukiontzietarako...	1,20

–Jarduera ekonomikoa ez bada: 10 m <sup>2</sup> edo zati bakoitzeko, eguneko, 20,00 eurotik gora	
–Bestelako erabilera edo aprobetxamendua, jarduera ekonomikoetarako: 10 m <sup>2</sup> edo zati bakoitzeko, eguneko, 20 eurotik gora	1,75
–Ostatuetako barrak, jaietan, m <sup>2</sup> bakoitzeko	22,00
–Kioskoak, maiatzetik urrirako denboraldia	345,50
–Merkatu txikia:	
• Zenbatekoa, egunean	41,00
• Zenbatekoa, hilabetean	97,00
• Hiruhilekoa	266,00
• Seihilekoa	509,00
• Urtebetez	962,00
–Kalez kaleko salmenta, festetan	96,00
–Bide publikora jotzen duten fatxadetan banku entitateek jarritako kutxazainak:	
• Kutxazain bakoitzeko, urtean	132,00
–Kupoiak eta loteriak saltzeko kioskoak eta kabinak:	
• Kabina edo kiosko bakoitzeko, urtean	72,00
–Saltzeko makinak bide publikora jotzen duten fatxadetan:	
• Kabina edo kiosko bakoitzeko, urtean	72,00
<b>II. epigrafea.–Lurgaineko aprobetxamendu bereziak</b>	
–Lurgainean eginen diren aprobetxamenduetan aplikatu beharreko tarifak izanen dira I. epigrafean ezarritakoen %50 (I. epigrafea: "Bestelako erabilera edo aprobetxamendua, jarduera ez ekonomikoetarako")	